

562/2018 Ebazpena, 2018ko ekainaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, 8. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak (2011ko aldi baterako kontratazio zerrendetan indarrean daudenak) argitaratzeko agintzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Osakidetza Zuzendari Nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez (232. EHAA, 2008ko abenduaren 3koa), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak onartu ziren, Osakidetza lotura estatutario finkoa eskuratzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.

Apirilaren 11ko 310/2018 Ebazpenaren bidez, 8. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin behineko zerrendak argitaratu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Behin behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 8. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak (2011ko aldi baterako kontratazio zerrendetan indarrean daudenak) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean argitaratzeko agintzea, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediko eta Teknikoak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

2018ko ekainaren 20an indarrean sartuko dira zerrenda hauek.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau web-gunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 8an.

**Osakidetza**
Juan Carlos Soto Pérez
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Juan Carlos Soto Pérez

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA